

Lehen urratsak eTwinning-en




Honako ibilbide hau iradokitzen dizugu:

- 1) Bisitatu eTwinning atari publikoak, nabigatu bere ataletan eta gogoan hartu gehien interesatzen zaizuna.

Europako eTwinning Ataria / *European School Education Platform*.

<https://school-education.ec.europa.eu/en/etwinning>





Espainiako atari nazionala: www.etwinning.es

2) Aztertu PROIEKTUAK atala; bertan, jardunbide egokien adibideak daude, kalitate-zigilua duten proiektuak eta saritutako proiektuak. Horiek eredu izan daitezke, etorkizuneko proiektu baterako inspirazio bat.

3) Erregistratu eTwinning plataforman.

Lehen urratsa EU Login kontu bat sortzea da. Europako ataritik egin behar da.

<https://school-education.ec.europa.eu/en>



EU Login
One account, many EU services

English (en)

Create an account Login

Create an account

[Help for external users](#)

First name

Last name

E-mail

Confirm e-mail

E-mail language
English (en)

☐ By checking this box, you acknowledge that you have read and understood the [privacy statement](#)

Create an account Cancel

Baieztatze mezu elektronikoaren bidez zure kontua baieztatu eta gero, *European School Education Platform* atarira sartzeko aukera izango duzu.

4) Hortik, datu gehiagorekin osatu behar da zure profil profesionala, lan egiten duzun ikastetxea eta zure interesak, eta eTwinning eremura sartu. Prozesu horri buruzko xehetasunak tutorial honetan dituzu: [eTwinning erregistroa-izen ematea nola egin](#).

5) Aurreko erregistroa osatuta, zure lan-ideiekin bat datozen interesak dituzten Europako irakasleak bilatzen hasi ahal izango zara plataforman. Jar zaitez haiekin harremanetan, eta baten bat zure kide izateko hautagai ona dela uste baduzu, gonbidatu kontaktua izatera.

Hori guztia tutorial hauetan xeheago ikusiko duzu.

6) Halaber, honi buruzko informazioa ere eskura dezakezu:

Prestakuntza-jarduerak:

- Hartu parte eTwinning Laguntza Zerbitzu Nazionalak (LZN) Espainian ikasturtean zehar eskaintzen dituen prestakuntza-aukeretako batean: <http://etwinning.es/formacion/?lang=es>
- Europako plataformak garapen profesionalerako ikastaroak ere eskaintzen ditu: <https://school-education.ec.europa.eu/en/professional-development>
- Hartu parte zure autonomia-erkidegoak antolatutako eTwinning prestakuntza-ekitaldietan. Sakatu hemen zure erkidegoko eTwinning ordezkariarekin harremanetan jartzeko: <http://etwinning.es/inicio/representantes-etwinning-en-las-comunidades-autonomas/?lang=es>
- Hartu parte LZNk egiten duen urteroko prestakuntza-ekitaldien deialdian. <http://etwinning.es/es/convocatoria-de-eventos-de-formacion-etwinning-2023/>
- Hartu parte eTwinning-ek eskaintzen dituen prestakuntzarako eta garapen profesionalerako jardueretan: *short online courses, long online courses* eta *webinars*.

7) Bestelako ekintzak:

- Kontsultatu eTwinning LZNren atarian eskuragarri dituzun material eta artikulu guztiak: <http://etwinning.es/>
- Kontsultatu Europako atarian hasiberrientzako eskuragarri dauden material guztiak. <https://school-education.ec.europa.eu/en/insights>

- Jarri harremanetan zure autonomia-erkidegoko eTwinning enbaxadore batekin Sare Profesionalak (*Networking*) ataletik. Ondoren, egin klik *Peoplen* eta erabili dagozkion iragazkiak, irudi honetan ikus daitekeen bezala:

The screenshot shows the 'Networking' section of the eTwinning platform, specifically the 'People' tab. It features a search bar and several filter categories: Member type (All), Vocational subject (All), Region (Andalucía), Subject (All), Country (Spain), and Language (All). At the bottom, there are four checkboxes: 'Any registered user', 'Only eTwinner', 'Ambassadors' (which is checked and circled in red), and 'Only eTwinners available for joining a project'.

- Egin bat zure antzeko interesak dituzten kideez osatutako eTwinning Talde batekin.

eTwinning ibilbidean sortzen zaizkizun zalantza eta gorabehera guztiak honako helbide elektronikoa honetara bidal ditzakezu: asistencia.etwinning@educacion.gob.es